

Alizia lurralde miresgarrian

GLU GLUren antzerkirako moldaketa

Lewis Carrollen “Alizia lurralde miresgarrian” ipuinaren haur antzerkirako moldaketa aurkeztuko du Glu Gluk. Ipuin klasikotik abiatuta gaur egungo haurrei zuzenduta, ikastearen edertasunaz eta beharraz arituko da antzezlanara. Kantu, dantza eta antzerkiarekin Alizia neska gazteak hainbat pertsonaia xeblebre eta dibertigarri ezagutuko ditu. Haiei esker onartuko du, eskolan erakusten dioten bezala, matematika, ingurugiroa, elikadura eta hizkuntzak ikasteak sekulako onurak ematen dizkigula. Eta, gainera, dibertigarria ere bada.

Alizia bere ahizpa Ixonerekin dago parkean arratsalde pasa. Ixone liburu bat irakurtzen ari da askaria jaten duen bitartean. Aliziak ez du askaririk jan nahi, gogorik ez duelako. Eta ez du irakurri nahi ere, oso aspergarria iruditzen baitzaio. Orduan berba jario ederra duen untxi zuri bat ikusiko du. Aliziak jakiminez untxia jarraituko du, ahizpa dagoen lekutik urrunduz.

Ate handi baten aurrera iritsiko da Alizia. Ate atzean dagoena ikusi nahi du, baina ez dauka atea bultzatzeko indarrik, askaria hartu izan balu... Untxiak orduan fruta eta ogitartekoa emango dizkio. Aliziak indarra du orain atea bultzatzeko. Ikasiko du, ondo janez gero eguneroko gauzetarako indarra dugula eta elikadura egokiak osasuntsu hazten laguntzen digula.

Ate handia gurutzatuta, Lurralde Miresgarrira iritsi da eta bertako pertsonaiek ezagumena eta jakintza garatzeko gauza pila erakutsiko diote. Chesire katuak naturaren magia erakutsiko dio, inguru eta naturako eskoletan bezala; Kapelagilea eta Martxoko Erbia hizkuntza ezberdinetan kontu kontari arituko dira tea edan bitartean, Alizia hizkuntza klaseen beharraz ohartzeko; eta Erreginaren lorezainekin matematika ikasiko du, poker jokoan bezala, karta bakoitzarekin zenbaki ezberdinak batu eta kentzen baitira.

Azkenean, Alizia etxera bueltatzeko gogoia izango du, nekearen nekez. Etxera itzultzeko, Erreginak asmakizun sorta jarriko dio Lurralde Miresgarritik atera ahal izateko. Aliziak ikasi duen guztia praktikan jartzeko aukera izago du eta jabetuko da ikastea lurralde hau bezain miresgarria dela!